


## Martxoaren 15a, Kontsumitzaileen Nazioarteko Eguna

***Erosterakoan, gazte gehienek aurretik pentsatuta dute zer erosi nahi duten eta, geroago, arazorik izanez gero, erreklamatu egiten dute***

Gazteen Euskal Behatokia EAeko gazteen kontsumo ohiturei edo jarraibideei buruzko ikerketa bat prestatzen ari da. Kontsumitzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, ikerketa horretako datu batzuk aurreratuko ditugu.

Ikerketaren oinarrian dagoen inkestaren emaitzak abiapuntu hartuta, baieztatu daiteke 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %67,7k aurretik izan ohi dutela pentsatuta zer erosi nahi duten; gainera, %45,4k zenbat gastatu nahi duten ere pentsatuta izaten dute. %49,3k denda desberdinetako salneurriak konparatzen dituzte normalean erosteko erabakia hartu baino lehen, eta %71,5ek eskaintzak eta beharpenak aprobetxatzen dituzte. Zenbat eta nagusiagoak izan, gero eta zabalagoa da gazteengan erosi nahi dena aurretik pentsatuta izateko eta denda desberdinetako prezioak konparatzeko jokabidea.

Aipatutako portaera bakoitza sarritan burutzen dutela diotenak bakarrik kontuan hartuz, erantsi dezakegu %63k kontuan izaten dutela produktua benetan behar duten, baina gutxi dira kontsumo arduratsuari lotutako ondoko portaerak dituztenak: %19,2k hartzen dute kontuan produktuaren lehengaiak; %19,2k sortuko dituen zaborrak edo hondakinak; %15,7k ekoizpenean inolako gizarte-bidegabekeriarik egon den (adibidez, umeen esplotazioa) eta %14k produktuaren ekoizpenak edo garraioak ingurumenaren gainean eraginik ekarri duen. Kontsumo arduratsuari lotutako jokabide horiek hedatuago daude adinean gora egin ahala.



Bestalde, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %32,2k marka ezagunetako produktuak erosten dituzte. Marka ezagunak erostea ohikoagoa da gizon gazteen artean (%37,7), emakumeen artean (%26,5) baino. %32k diote produktua erabiltzeko argibideak irakurri ohi dituztela; %37,4k etiketa konprobatzen dute, eta %83,8k produktua ondo dagoela konprobatzen dute, erosi baino lehen. Beste %51,2k bermea konprobatzen dute. Argibideak irakurtzea, baita etiketa eta bermea konprobatzea ere, gero eta ohikoagoa da adinean gora egin ahala.

Produktua ordaindu ondoren, gazteen %70,5ek faktura edo tiketa konprobatzen dute, eta %60,7k bueltatzen dieten dirua. Geroago, produktuarekin, fakturarekin edota bermearekin arazorik izanez gero, %81,9k erreklamatu egiten dute.

Zenbat eta nagusiagoa izan, orduan eta gehiagok konprobatzen dute faktura, baita, arazorik izanez gero, erreklamatu ere, baina, aitzitik, gutxiagok konprobatzen dute bueltatutako dirua.

EAEko gazteen kontsumo ohiturak [Estatu](#) osoko gazteek dituztenekin alderatuta, baiezta daiteke gazte gutxiagok dituztela ondoko portaerak EAEn: denda desberdinetako salneurriak konparatzea, etiketak konprobatzea, erabiltzeko argibideak irakurtzea, bermea konprobatzea eta ordaindu ondoren bueltatutako dirua konprobatzea. Marka ezagunetako produktuak erosten dituztenak ere gutxiago dira EAEn.

